

JUANTXO-TXIKI ENTZULE (14)

Kontu-kontari zabiltzanean, kontulari ona ba'zara, ao-zabalik egongo jatzu Juantxo-txiki. Txarra bazara, entzunik ez. Irudimenean ikusten diran itzez bazabiltza, orduan bai Juantxo-txikik zure itzak entzun ez, jan ingo dauz.

Filosofuen antzera goi-maillatik bazabiltza, alperrik zabiltz... Juantxo-txiki urrutira joango jatzu: badau bere barruan zuk eskeintzen dautsazun baiño mundu ederragorik. Badau ark bere barruan ikuskizun ederrik...! Areik bai ikuskizunak eta zuk eskeintzen dautsazun berba ete mintzo ergelak, geldoak eta astratoak...

* * *

Zuri entzuten ao-zabalik egon bada, zuk bukatzean, ao-zabalka asiko da. Aspertu dalako? Ez. Juantxo-txiki nekatu egin jatzu. Neurri txikiko entzulea dogu. Txiki da gauza eta arazo guztietan eta bereala gogaitzen da entzutean be.

Gogoa be txikia dau eta azkar betetzen jako: gogoa-aitu. Gogaitu da. Ao-zabalka batzuek egin ondoren, berriro uztutzen jako gogoa eta bein gogoa utzitu ezker, berriro entzuteko prest.

Ura zelan edaten dau oilloak? Tantoka, gitxika. Zure aurrean entzule daukazun umetxoa, oilloaren antzekoa dala gogoratu.

* * *

Guri be aundi izanagaitik bardin gertatzen jaku bein baiño geiagotan, besteen entzule geranean. Ez dala ainbestekoa? Aztertu itzaldietan, entzule zaran itzaldietan alegia. nundik-nora dabillen zure gogoa eta irudimena. Belarrietan sartutako itzak ez jatzuz barrurago joaten. Frontoian jotako pelotea lez joandiran tokitik datoiz berriro...

— Nundik zabiltz?

— Ez, ni saiatzen naiz ondo entzuten, baiña...

— Baiña... aria galdu. Eldutzen dautsazu barriro ariari eta berriro galtzen jatzu.

Eldu eta galdu. Geldu eta eldu. Gora eta beera zabiltz. Orra zure jokabidea, entzule maitea. Izan be, gure entzule-aalmena itsasoaren olatuen antzekoa da: gora doa goraiño; andik asiko da beeraka beeraiño. Beetik gora barriro; goitik beera aldiro. Etenik barik.

Goraka doala, aalmena gogaitzen jaku, nekatzen eta orduan entzuteari izten dautzagu. Beeko aldean atsedean apur bat artzen dogu eta aria galtzen, gure bidetik ibiltzeko irudimenaren eskutik. Ibillaldi bat egin-da, bagatoz barriro bide onera, ariari eltzen dautsagula...

* * *

Guri orrenbeste gertatzen bajaku, ez da arritzekoa Juantxo-txikiri gertatzea. Guri baiño gerago, gure aldean txikia dan neurrian. Kontuak atera.

* * *

Zure entzule ona Juantxo-txiki izatea, zure eskue-tan dago. Aldi bakoitzeko egin berba gitxi, itz argiak eta irudimenarekin ikusteko modukoak. Aldi bakoitzeko, bere neurrian. Neurri txikian, txikia bait da bere neurria.

Gozo-opil gozoena be ez dogu osorik aldi bakar batean jango. Ggozoena bada be ez. Zatika baiño baik. Apurka baiño. Zure mintzoa, bardin.

ARRINDA'TAR ANES

